

BASERRI GIROKO NESKAME BATEK ZER DIOEN

Honetan sartu nintzen langabe nengoe-lako eta diru premia nuelako; herritik 7 kilometrotara dagoen etxe batean egiten dut lana. Nire problemarik handiena zera da, egunero goizez joateko eta itzultzeko auto-stop egin beharra. Joan-etorriak ez dizkirate pagatzen. Esan zidaten, bai, urte bukaeran zerbait geldituz gero, bidaiak pagatuko zizkidatela; baina oraindik ez dut ezer ko-bratu.

Lan egiten dudan etxeko andreak mun-duko gaitz guztiak ditu, zirrosis, odol irrigazio eskasa eta mundu guztia deprimitzen duen depresio kronikoa.

Langabe dagoen seme batekin bizi da.

Senideek ahalegin guztiak eginagatik, benetan gogaikarri egiten da bere depresioak direla-eta. Nik ez dut ez erosketarik ez bazkaririk egiten, ni garbiketaz arduratzen naiz bakarrik, hau da, neskame gisa joaten naiz. Astelehenetik ostiralera lan egiten dut, ordu t'erdi batez.

Etxe horretatik irtendakoan, ogisaltzai-learekin joaten naiz baserri batera beste ordu t'erdirako. Han bularretako kantzerraz operatua dagoen emakume bati laguntzen diot; emakume honen senarra, berriz, erdi elbarria, oso lodia eta barizez operatua da. Bi semerekin bizi dira, bata soldaduskan dago eta bestea langabe, baina honek ere solda-duskara joan beharko du laster.

Etxeko garbiketa egiten dut bakarrik.

Etxea oso gaizki dago, ez du telefonorik, ez ur berorik, ezta komunik ere. Labadora, eskuzkoa.

Behin lanak bukatu ondoren, problema-rik handiena etxera itzultzea da.

Baserrian guztiz zabarturik daude eta as-ko eskertzen didate egiten dudana. Neurri batean beren erruz daude egoera horretan eta ohitu egin dira kondizio txarretan bizi-tzen.

Laguntza handia behardute. Ni haientzat lagun bat naiz, benedizio bat bezala. Emakumea noizean behin herrira jaitsi eta el-kartzen da jendearekin; senarra, ordea, nere zain egoten da bere barrua askatzeko. Beste etxean, egun batean huts egiten ba-dut, andrea gaisotu egiten da. Nirekin kon-tu-kontari egoten da adiskidea banintz beza-la, baina joateko ordua iristen denean hase-rretu egiten da eta lanak bilatzen dizkit handik ez joateko.

Baserrian inork ez dit esaten zer egin be-har dudan eta gauzak nere kasa egiten ditut. Beste etxean eskailerak garbitzen ditut, bai-na nik nahi dudalako.

Etxean inor ez denean giltza lanpas az-pian uzten didate eta baserriko atea beti ire-kita egoten da.

Nire arazorik larriena aseguroena da. Etxe-zerbitzarien aseguroa pagatu behar dut, hau da, 6.320 pezeta. Salbuespen zer-bait egin beharko lukete eta aseguroaren parte bat pagatu bederen. Batzuk aitaren aseguroa dute edo senarrarena, baina ni deus ere gabe nago eta bi seme-alaba elika-tu behar ditut.